

## **Espainiako Haustura Taldearen XXIX. topaketa**

2012/03/21

Gaurtik etzirarte 23, materialen nekearen, hausturen eta iraunkortasunaren esparruko 150 ikertzaile eta profesional Bilbon elkartuko dira, Espainiako Haustura Taldearen XXIX. topaketan. Mondragon Unibertsitateak eta Espainiako Haustura Taldeak antolatu duten ekimen horretan.

Ikerketen emaitzak hainbat eremutan aplikatu daitezke, hala nola, hegazkin-hegalen erresistentzietan, ibilgailuen indargetze-sistematan, igogailuen kabinetako edo eraikuntza zibilen (adibidez, Bizkaiko zubiaren) egituretako esekidura-sistematan eta Zubi Zuri pasabidearen kristalezko (beira epeleko) lurzoruan. Izan ere, gure eguneroko segurtasunean zuzeneko eragina dute.



---

Haustura Jardunaldia